

# MENDIGOIZALE EZ-EZAGUNA

(JUAN JOSE URTEAGA)

FOR MATXIN LABAYEN

J. Ignacio Elósegui  
ta bere amazteari.

Euskalerrri osoa mendiz josia dagola esatea ez da gauza berria. Zer da ba Euskalerrria— itxaso txiki orlegui bat— gallur arkaitzuz josia? Ta noski, ez da arritzekoa— Euskaldun tartea'n mendigoizale ospetsu— bikaiñ— aundiak— gorat-suak— mendiak baño geiago— arkitzea.

Beren anima ta ezurrak— arkaitzez egiñak dira ta.

Bañan asko ta askotan mendigoizale ospetsu— ezaunenak ez al dute bere izena geiege goratzen izparringi, radio ta telebisioa'n? Nere ustez oiek ez dira mendigoizale onenak. Mendigoizale ona izateko mendira joatea aski da— ixil ixillik— txorakerik egin ta esan gabe— iskanbillik gabe.

Oietakoa zan Juan Jose Urteaga (GB) gure adiskide zarra.

Mendigoizale bikaiña— ta ori bai— apala— zintzoa— euskaldun jatorra bere euskalduntasun— abertzaletasuna bildurrik gabe azaltzen zuana. Igandero— ta askotan egun batean bi aldiz— an joaten zan bakar bakarrik mendira... bakardade— pake billa— iskanbillatik urruti!

Jose Urteagak ez zuan maite ez iskanbilla— otsa!

(Neretzat beintzat egizko mendigoizaleak— bakardade zale— pake zale izan bear dira— mendiare'n edertasuna obetoago idozkitzeko.

Mendi animare'n barrun obetoago sartzeko! Mendiaki'n obetoago jaunartzeko! Mendia ez dalako gauz illa— bizia baizikan. Ta Euskalerrriko mendiak ez dira beste aldekoak bezela— Euskaldunentzat beintzat. Mundua'n dauden— ederrenak noski! Bañan gure aguneta'n— zori txarrez jende geiegi mendia'n— jende ostuna transistor edo beste deabruare'n tresna oieki'n. Mendiare'n ixiltasun deuna ez al dute adeituko?

Mendiak ere bere legeak ditu eta lege oiek iskanbilla galarazten dute. Jose Urteaga egizko mendigoizalea zan. Arek bai ondo mendiaki'n jaunartu— ixilka— zorientsu— mamitsu!

Ernio zan bere mendirik maiteena. Zergatik? Ez dakigu— bear ba da an goia'n zillarrezko arkaitzeta'n ikuskiñ zoragarriak aurria'n zituala arkitzen zuelako an beran arkitzen ez zuen gauza. Mixterio gozoa. Azkenengo urteeta'n— zenbat aldiz ez nuen ikusten Zumardi Aundia'n bere andi matte ta Olano Gotzai euskaldun agusgarriaki'n! Jainkoak eraman digu betiko mendi urdiñera. Zerua ez al da mendigallur urdiñ dizdiratsu goratsu bat?

Bañan ba dakigu berriz ikusiko degula laister an goian gure mendigoizale bikaiñ ta euskaldun garbi kementsua (Orain Euskalduntasun ori agertzea gauza ausartia da— erruduna!) eta itxaropen orrek goxotzen du gure samiña.

Eta bukatzeko gure Arrese ezezagun aundiare'n bertseo batsuek aitatuko ditut: (Onek ere merezi du omenaldi «txiki bat»)

Ibar ontatik, i maite ori  
 Amaigabera joan aiz  
 Goiko urdiña nungait ire aberri

Bera joan da— bañan Jainkoari eskerrak utzi ditu ondorengoak. Bi gazte mendigoizale— euskaldun jatorruk!

Ta oeieki'n abestu genezake pozik—  
 Gu gera Euskalerriko Gaztedi Berria...  
 Euskalerrria bakarra da gure Aberria.